

Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna

## Gurutze Gorriak behin betiko berdintasuna lortzeko eraldaketa soziala bultzatzen du

■ ‘Emakume Boteredunak, Emakume Ahaldunduak’ da Gazteen Gurutze Gorriko kanpaina berriak hautatutako goiburua. Ekimen horren bitartez genero-berdintasuna bultzatu nahi da emakumeak ahaldunduz,

■ 2018an, 1.500 emakumetik gora parte hartu zuten Euskadin Gurutze Gorriaren Enpleguko hainbat proiektutan, eta ehuneko 44k laneratzea lortu zuten. Gainera, ehuneko 35k lanaren merkatuak eskatutako prestakuntza profesionala jaso zuten

Genero-berdintasunaren alorreko eta emakumeen eskubideen aldeko errebindikazioek puri-purian jarraitzen dute, agenda sozial eta politikoaren buruan. Martxoaren 8a aukera ona da ildo horretan lortutako guztia nabarmentzeko, baina aukera ona da, halaber, aldaketa eraldatzaile, ikuspegi integratu eta soluzio berriak lehenbailehen abian jartzeko, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako egiturazko oztupoak apurtzeko bidean.

**Genero-indarkeria** da genero-desparekotasunaren adierazpen gorena. Lanaren eremuan, asko dira emakumeek, emakumeak izateagatik soilik, gaintitu beharreko oztupoak, hala nola **soldata eta pentsioetan nabari diren aldeak, lan-baldintzen prekarizazioa, okupazio-segregazioa, mailaz igotzeko zailtasunak eta kristalezko sabaia**. Horrez gain, **etxeko lanen eta zainketen** erantzukizun ia osoa, **erantzukizuneko postuetako** eta erabakiak hartzeko guneetako ordezkari urria, eta **pobreziako eta gizarte-bazterkeriako** maila handiagoak.

Gurutze Gorriak artatutako guraso bakarreko familia ia guztien buruan emakumeak daude; langabe dauden emakumeen % 77k baino gehiagok estaldura ekonomikorik ez dute; emakumeak gehiengo dira, halaber, zaintzarekin zerikusia duten arazoak tarteko lana bilatzerik ez dutenen artean; ehuneko 100 dira seme-alabak inoren esku uzterik ez dutela diotenen artean; eta ehuneko 70 baino gehiago adinekoak edo dependentzia duten pertsonak zaintzen dituzten artean. Gehiengo dira, halaber, Elikadura Laguntzako programan parte hartzen dutenen artean, baita energia-pobrezia pairatzen dutenen artean ere. Joan den urtarrilean aurkeztutako azken **Kalteberatasun Buletinean** bildutako datuek horixe erakusten dute. **Etxebizitzaren eta energia-pobreziaren esparruan** zentratu da buletin hori oraingo honetan.

Gauzak horrela, Gurutze Gorriak, hainbat erantzunen bitartez, desparekotasun- eta diskriminazio-egoera horiek murriztu, minimizatu edo desagerrarazi nahi ditu, esparru guztietan gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna bultzatzeko ekarpena eginez.

Nabarmentzekoa da gizarte-zailtasunetan dauden emakumeentzako Gurutze Gorriaren programak artatutako emakumeen ehuneko 77 ATENPRO genero-indarkeriaren biktimen arreta eta babeserako telefono-zerbitzuaren erabiltzaileak (Presidentziako, Gorteekiko Harremanetarako eta Berdintasunerako Ministerioak du zerbitzu horren titulartasuna, Espainiako Udaleri eta Probintzien Federazioak kudeatuta) eta/edo Gurutze Gorriak emakume eta seme-alabei aldi baterako harrera emateko kudeatzen dituen zerbitzuen erabiltzaileak direla.

Bestetik Erakundeak emakume eta neskekin aurrera daramatzen jardunetako askok emakumeen ahalduntzea dute helburu. Besteak beste, **genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako taldeak** antolatzen dira, emakume horien suspertze emozionalean eta pairatutako indarkeria gaintzeko eta elkarri laguntzeko sare sendoak eraikitzeko bidean laguntzeko. **Emakume migratzaileekin** ere lan egiten dugu, sareak eraikitzeko ekimena indar dezaten eta beren eskubideak

askatasunez baliatzeko tresnak lor ditzaten. Emakumeekin beste jarduera hauek ere antolatzen dira: **autodefentsarako, autozaintzarako eta sexualitateko tailerrak, aukera-berdintasunarekin eta indarkeria matxisten prebentzioarekin lotutako prestakuntzak, eta aisiarako eta emozioak adierazteko jarduera** ludikoak.

Emakume horien gaitasun pertsonal eta profesionalak hobetzeko ikuspegitik ere jarduten dugu, haien enplegarritasuna handitzeko helburuarekin. 2018an **1.642** emakumek parte hartu zuten Euskadin Gurutze Gorriaren hainbat prestakuntza- eta enplegu-proiektutan. **Ehuneko 44k laneratzea lortu zuten, eta, gainera, ehuneko 35ek prestakuntza profesionala jaso zuten.** Enpleguak, lan-aukerak emateaz gain, aldaketa garrantzitsuak ere badakartza haietako askorentzat, esaterako, indarkeria-egoera batetik ateratzeko edo paper batzuk lortzeko aukera ematen die, bizi-proiektu batekin hasteko lagungarri.

Ildo horretan, **'Emakume Boteredunak, Emakume Ahaldunduak'** da Gazteen Gurutze Gorriko kanpaina berriak hautatutako goiburua. Ekimen horren bitartez genero-berdintasuna bultzatu nahi da emakumeak ahaldunduz, beren erabaki, gaitasun eta trebetasunen gaineko, —eta, azken batean, beren bizitzen gaineko— kontrola lortzen hasi daitezen, gizarte bidezkoagoa lortzea helburu. Emakumeak ahaldundu gabe eta emakumeei ahalmena onartu gabe ezinezkoa delako genero-desparekotasuna gainditzea.

Bestalde, Gazteen Gurutze Gorriak 3.600 pertsonekin genero-ikuspuntua eta hezikidetzak gaitan lan egin zuen, kanpaina ezberdinen bitartez eta eskola eta espazio ezberdinetan garatutako proiektuen bidez.

Gurutze Gorriak hainbat ekintza bultzatzen ditu genero-ikuspegia bere antolakuntza-politikan eta bere programa eta proiektuetan biltzeko. Konpromiso hori barrura begira sendotzeko, 2018an Batzorde Nazionalak Genero Estrategia bat onartu zuen, eta, horri esker, Erakundeko arlo guztiak emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde jardun dezatela sustatzen du.

## BESTE BALIABIDE BATZUK

bideoa.

<https://cruzroja.tv/video/11028>

**17. Kalteberatasun Buletina, Gurutze Gorriak artatutako biztanleriaren etxebizitzaren eta energia-pobreziaren esparruari lotutakoa.** <https://bit.ly/2T0cQlv>

Álvaro García Serrano  
Komunikazio Arduraduna

Arabako Gurutze Gorria  
Tfn. 945 22 22 22 luzapena 8 | 678 40 14 43 | [comunicacionalava@cruzroja.es](mailto:comunicacionalava@cruzroja.es)